

AMURRIOKO UDALA/ALKATEA: URTE 1 KOMITEAREKIN EZER ERE NEGOZIATU GABE!!



Gaur, Amurrioko udal langileak, ostiralero bezala, kontzentrazio zaratatsua egin dugu. Amurrioko Udalak eta bere alkateak udal langileek hautatutako Komitearekin ezer ere negoziatu gabe 375 egun daramatela salatu dugu. Urte bat baino gehiago!!.

Ordutik, alkateak erabakiak alde bakarrez hartzen ditu: berak hautatutako langile gutxi batzuei (lanpostuen baloraziorik egin gabe) soldata igoz, eta Arartekoak frogatu bezala, lan-poltsak Amurrioko Udalaren Lan-poltsen Araudiaren kontra erabiliz. Horren aurrean, kontziliazio neurriak arautzea eskatzen diogu, langileek propio berari mesederik eskatu behar ez izateko eta baita, hainbat udal eta aldundi guztietan egin bezala, aurrejubilazioak saritzea. Baina Amurrion ez du egin nahi.

Guk langile guztiak berdintzatatzeko exijitzen diegu, eta udal langileen %74ak sinatutako aldarrikapen plataforma negoziatzeko eskatu. 3 aldiz erregistratu behar izan dugu eskaera hori, azkena, pasa den ostiralean. Legez, hilabeteko epean aktibatu behar dute Negoziazio Mahaia (TREBEP 34.6 art.), eta ez dute egin. Arartekoan salatu dugu egoera hau ere.

Ez dugu ulertzen herritar guztiei zor zaion alkate batek, nola ez duen nahi bere udal langileek hautatutako ordezkariarekin elkartzeko. Jarrera hori ez da demokratikoa. Ez da kontu politiko bat. Amurrion Gobernuan dauden EAJ-PNV eta PSE-EEk ez dute horrela jokatzeko beste erakundeetan. Hau, Udal Gobernu Taldearen, eta bereziki alkatearen burugogorkeria bat da.

Ez al da izango, alkateak ez duela bere udal langileek demokratikoki bozkatutako ordezkaritza onartzen?

Beste behin, Amurrioko Udalari eta alkateari fede onez negoziatzeko eskaera egiten diegu, jarrera eraikitzaile batetik. Guk beti egin dugun bezala, konpromiso horiek publikoki hartzen ditugu.

Amurrión, 2026ko urtarrilaren 23an

AMURRIOKO UDALEKO KOMITEA

